

Txema Auzmendi

“Egunkaria”-ren itxierako auzipetua

Fiskalak eta defentsak bost auzipetuen absoluzioa eskatuta, haien aurkako frogarik ez dagoela iritzi ondoren, epaiaren zain dago Txema Auzmendi, beste “Egunkaria” auziko beste lau auzipetuak bezala. Edozer espero behar dela ohartarazi du, oraindik ere, nahiz eta baikor egoteko arrazoiak dituen orain.

Haritu: zer moduz zaude? Nolako gogo eta ixaropenaz?


Txema Auzmendi: Madrilgo Entzutegi Nazionalen ikusirik nolako giroa sortu zen, gero eta hobeto. Batez ere Fiskalak eutsi diolako bere hasierako jarrerari, hau da, berretsi du ezin dela frogatu ETA “Egunkaria”-ren atzean dagoenik. Akusazioek ez dutela oinarri nabarmendu, eta bost auzipetuentzat absoluzioa eskatu du fiskaltzak ondorioetan. Jada ezin da artxibatu, gauzak aurrera joan direlako, baina beno, bukatu da “infernu” honen aldi garrantzitsua. Guk, gure babes taldeak eta euskal gizarteak hasieratik pentsatzen genuen gauza bera esaten du fiskalak, hau da, hemen ez dagoela deliturik, eta bultzada politikoa egon dela. [Absolbitu egingo gaituztela pentsatzeko arrazoiak ditut orain, epaiketan entzun eta ikusi dudanarengatik, batez ere fiskalak hain tinko heldu diolako gure aldeko jarrerari.](#) Dena den, epaiak, ebazpenak zer dion ikusi beharke orain. Horren zain gaude. Bestalde, gure abokatuek lan handia egin dute akusazioen funtsik eza agerian uzteko, baita auzipetu bakoitzaren nortasuna erakusteko ere, eta eskertzekoa da hori. Epaiketan zehar, akusa-

zioen helduleku bakarra Guardia Zibilak egindako txostenak zirela agerian gelditu da, eta froga perizialaren bidez, txosten horien balioa auzitan jartzeko unean, argi gelditu da egiaztatu gabeko hipotesiak eta okerreko interpretazioak baino ez zirela. Gehienbat azken saioetan, oso agerian geratu ziren guardia zibilen gezurrak eta azpijokoak. Alde horretatik itxaropentsu nago, argi geratu baita akusazioak nolako arinkeriaz gauzatu diren.

Haritu: defentsen abokatuen galdeketak perituen kontraesan eta hutsune ugari azaleratu ditu: interpretazio okerrak, itzulpen faltsuak eta akatsez beteak, dokumentazio falta...

Txema Auzmendi: lotsagarria izan da, zenbat eta zenbat trikimailu, gezur eta saiakera maltzur. Batetik, onartu behar izan zuten ETARI atzemandako agiriei emandako datazioa ez zela fidagarria, une ezberdinetan egindako dokumentu batzuk (proposamenak zein erantzunak) egun eta ordu berean sortuak baitziren. Aurretik esandakoaren kontra, onartu behar izan zuten “Egunkaria”-ren kasuan agiri horietan ez zela klabe bidez aipatzen. Paperak eskutan deklaratu zuten une

oro, baina galdetutakoa paperetan aurkitzen ez zutenean, behin baino gehiago erantzunik gabe gelditu ziren, zalantzakor. Bazituzten itzultzea “ahaztu” omen zitzaizkien orri osoak. Eta itzulpen “gaiztoak” eta traketsak ere bai; hau da, oker batzuk bestelako intentzior eginak, jatorrizko idatzietan ez dauden ideiak agertzeko asmoz. Itzultzaileek argi ohartarazi zuten itzulitako agiriak irakurtzen dituen erdaldu batek ez lukeela sekula jakingo jatorrizko testuen edukia zein den. Peritu aditu batek esan zuen nekatu gabe jarrai zezakeela sei ordu itzulpen okerren adibideak erakuten. Bestetik, gure kasuan luze ibilitako guardia zibilek ez zekiten “Deia”-k eta “Egin”-ek izan zutela astekari bat egunkari bihurtzeko bidean. Gurea izan zen hirugarren proiektua. Bada, ideiarik ez horretaz. Ezjakintasuna eta informazio falta ikaragarria. Begira nitaz esandakoa Guardia Zibilen buruak: “*Jose María Auzmendi toma parte en una reunión de la Dirección de Egunkaria y ve que hay una persona allí presente, que no pertenece al Comisionado de la Dirección, el militante de ETA Garikoitz, y no hace nada*”. Gezur borobila, ez zen inoiz izan. Baiztapen hori egiaztatzeke zer froga zuten galdeu zienan Fiskalak, isiltasuna izan zen erantzuna. Gu atxilotzeagatik edozer astake-



«Edozein tratu txar edo sufrimendu
motaren aurrean bigunago
sentitzen naiz zorigaitzoko
2003ko otsailaren 20 hartatik»



ria esateko prest egon dira.

Haritu: “Egunkaria”-k lerro editoriala ETAREN aldekoa zuela egiaztatzeko frogen gabezia ere begi-bistan geratu da epaiketan.

Txema Auzmendi: guri egozten diguten gauzarik larrienaz, urtetako espetxealdia ekar baitezake, ez dute frogarik, ez dute ikertu. Lerro editorialaren ikerketarik ezari buruz, une batez, guardia zibilek onartu zuten ez zutela “Egunkaria”-ren ildo editoriala aztertu, albisteen itzulpenak zekarren zailtasunagatik. Baina “Egunkaria”-k ETAREkin zeukan lotura nabarmentzeko telebista bat eta irrati bat egiteko asmoa zeukala argudiatu zuten, «gizar-tea euskalduntzeko helburuarekin».

Haritu: lehen aldia da auzipetuak errugabetzeko eskaera egiten duela Fiskaltzak. Baikortasunerako atea, beraz, hortik espero duzue?

Txema Auzmendi: absolutioa eskatu dute Carballo fiskalak eta defentsak “Egunkaria” auziko bost auzipetuentzat. Alde guztiak berretsi dituzte behin-behineko ondorioak, baina fiskalaren kasuan lehen aldia da zehazki errugabetzeko eskaera egiten duena. Inoiz ez da horrelakorik gertatu. Juridikoki garrantzitsua da, horrela egingo zuela espero izatekoa bazen ere. Fiskalak lehengoari eutsi diolako (bere garaian auziaren artxiboa eskatu zuen) eta gure kontrako frogarik ez delako azaldu. Carballo fiskalak, 2006ko abenduaren 14ko idatzian, esan zuen inolako oinarririk ez zegoela inor epaitzeko, Egunkaria ixteko erabili zituzten argudioek ez zutela ezer frogatzen. Guardia Zibilaren ikerketa, Del Olmoren instrukzioa eta fiskaltzaren ordura arteko jokabideak goitik behera auzitan jarri zituen Carballok. Fiskalaren jarrera behar bezalakoa izan da epaiketan. Bere babesa izan dugu eta horrek lasaitasun handia eman digu. Perituen galdeketa labur eta zehatz agertu zen, baina zorrotz ere bai. Galdeketa guardia zibilek,

ziurrenik, latzak ikusi zituzten, urduri ageri ziren itaunketa zorrotzen aurrean. Guretzat pozgarria izan zen guardia zibilak ikustea egoera horretan, beren gezur eta tranpa guztiak agerian nola gelditzen ziren ikustea. Dena den, guri askoz okerrago pasarazi zizkiguten minutu asko.

Haritu: errugabetzeko epaia ematen badute, kalteordainak itzelak izango dira...

Txema Auzmendi: ez omen da hain erraza. Gerta liteke ebazpena gure aldekoa izan arren kalte-ordainak ez kobratzea. En omen da nahitaezkoa ordaintzea. Ba omen dago horretarako lege bideren bat. Bestela, bai, arrazoi duzue: dirutza handia litzateke, eta bestelako erreparazioak. Nik behintzat oso argi dut nori eskatuko nioke erreparazioa, nori eskatuko nioke epaitegira joan eta aurpegia ematea: Del Olmo epaileari. Dituen erantzunkizun handiengatik, operatibo guztia berak baimendu zuelako eta tratu txarrak eta bidega-

bekeria guztiak bera agintean zelarik gertatu zirelako. Eta bi guardia zibil bururi ere. Gutxienez hiru horiei eskatuko nizkieke erreparazioak.

Haritu: gizartearengandik jaso duzuen babesak indarra emango zizun une askotan. Uste duzu babes horrek izan duela eragina edo garrantzia epaiketean?

Txema Auzmendi: han eta hemen gauzatu dira auzipetuei babesak eta laguntza emateko ekimenak zazpi urte hauetan. Askotarikoak izan dira, xumeak eta indar handiagokoak: manifestazio erraldoiak, kontzertuak, elkarretaratzeak, argazki erraldoiak eta abar. Inpunitateak jaso dugun berotasuna, laguntasuna, maitasuna... horrek ez du preziorik. Epaiketako protagonista nagusietako bat publikoa bera izan da, babesak eman digun jendea. Auzipetuen senide eta hurbilekoak saio guztietan izan dira. Gure ondoan izan ditugu Madrilerainoko joan-etorri luzeetan. Epaigela bertaraino joandako ordezkariak sozial, sindikal eta politikoen bidez, ere babes adierazgarria sentitu dugu, baita kalean ere, bestelako ekimenei esker. Senide, lagun, lankide eta euskal gizartearen beroa ez zaigu falta izan. Auziperatuei begira, zalantza izpirik ez garrantzi ezinbestekoa duela babes horrek, baina auzitegi epaiketarako bertarako ez da bermea. Joan den hilabetean auzia artxibatze eskatu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. EAJk, Aralarrek, Hamaikabatek, Alternatibak eta EBk ez zuten, PSE-EEk ere egin du horren alde. PP izan zen erabakiaren aurka egin zuen bakarra. Gipuzkoako Batzar Nagusietan onartukoaren arabera, auzia “ez dago zuzenbidean oinarritua” eta horregatik Espainiako Auzitegi Nazionalari eskatu diote “kasua artxibatze eta eragindako kalteak osatzeko”. Beraz, alderdi politiko gehienek aldetik ere jaso dugu elkartasun mezua. Hemengo politikan izan du garrantzia auziak. Madril, baina, ez dakit zenbaterainokoa izan dezakeen. Zaila da neurtzea, Madril Madril da, urruti dago, gu gutxi gara eta eta gureak Estatuan ez du saltzen. Gure kontrakoak bai, zoriturrez. Auzia bultzada politikoaren eraginez jarri zen martxan, eta euskara eta euskal kulturaren kontrako eraso izan zen. Eraso lazarria. Giro estua, presio ikaragarria bizi genuen orain zazpi urte, PP, Aznar, agintean zelarik. Argi da-

go izugarriko bidegabekeria hau berarekin hasi zela. Euskara eta euskal kultura instituzioetatik at utzi nahi zuten. Kanporatze hori zuten jomugan eta gu horretan sartu gintuzten. Zuzenbidezko Estatuaren omen denaren izenean eta legeak erabiliz hori egitea bidegabekeria izugarria da. Zazpi urte pasa direnean txiera agindu zutenetik, PP txintik ez du esaten auziaz. Hasierean bai, baina gero isiltasuna. Horrek esan nahi du Dignidad y Justicia eta AVT ordezkariak dituen herri akusazioak Fiskalaren eta alderdien babesik gabe geratu direla, bakardade izugarria. Hain aldeko batzuk agertu ziren epaiketaren lehen saioetan, baina azken saioetan ez zuten inor lagun. Galdetzen zenidaten hemengo babesak eraginik izan ote duen epaiketean. Bada, bai, uste dut PP eta PSOE alderdietan nabarmenki izan zuela. Fiskalarentzat seguru ona izan dela horretaz jabetzea. Orain, epaileentzat... ez dakit. Fiskalaren posturak Auzitegi Nazionalan ez du izan behar batera atsegina, giroa ez doalako bere alde.

Haritu: tratu txarren gaiak toki handia hartu zuen epaiketean...

Txema Auzmendi: bai, toki handia hartu du. Ni ez ninduten jo, ez zidaten poltsarik eta horrelako tortura fisikorik egin; psikologikoa bai, ordea. Hala ere, oroitzen denak izugarri gogorak dira, tristeak, inori opa ez diodan zerbait da. Martxelo Otamendik, Iñaki Uriak, Juan Mari Torrealdaiak eta Xabier Oleagak bai, pairatu zituzten tratu txar fisikoak. 2003ko otsailan, Guardia Zibilarren esku, atxilotuta eta inkomunikatuta izan zirenean bizi izan genuen egoera ere kontatzen utzi ziguten epaiketean zehar, ez ziguten trazarik jarri. Epaileak ez zigun une bakar batean ere hitza kendu. Martxeloren kontaldia izugarri gogorra izan zen, baina ederra aldi berean. Egia kontatu ahal izan zuen. Hain justu, tratu txarregatik Martxelok jarritako salaketa izan da Espainiar Estatuako arlo juridikoan ibilbide osoa egin duen bakarra. Besteak atzera bota zituzten. Espainiako auzitegietan bide guztiak agortu ondoren, Martxelok Espainiako Erresumaren kontrako salaketa jarri zuen Europako Giza Eskubideen Auzitegian. Hangoen erantzunaren zain dago. Bestetik, “Egunkaria”-ren historia, sorrera banan-banan harilkatu ahal izan genuen epaiketean eta hori oso ederra izan zen guretzat. Euskaldu-

non hizkuntzaz idatzitako lehenengo egunkari hura sortzeko asmoak, ilusioak, lana, gogoia oroitzen genituen kontaketa benetan hunkigarria eskaniz, luze eta zabal. Gure epaiketako epaileek adi-adi jarraitu zuten gure jarduna. Madrilgo nire abokatuek holako zerbait esan zidaten: «Orain ulertu dugu pixkat zer izan zen ‘Egunkaria’-ren sorrera!». Horrek zera pentsarazi zidan, agian hiru epaileek ere -edo beraietako norbaitek, gutxienez- “Egunkaria”-k euskal kulturaren bete zuen hutsune nabarmena eta sortu zuen poz-itxaropenak ulertzeko gai izan zirela.

Haritu: nolako oinatza utzi dizu 2003ko otsailaren 20 hark?

Txema Auzmendi: esango nuke askoz sentiberagoa egin nauela giza harremanetan. Sufrimendurekin, torturarekin edo tratu txarrekin lotutako berriren bat jasotzen dudanean, oso hunkituta sentitzen naiz, negargura errazago datorkit. Baina ez bakarrik guardia zibilengandik edo ertzainengandik datozen tratu txarrak direnean, edozein tratu txar edo sufrimendu motaren aurrean bigunago sentitzen naiz. Bestetik, zorionez, auzipetuen arteko harremanak oso aberasgarriak, lagungarriak izan dira. Mundu berri bat ireki zitzaizkidan auzian izan ginenon artean sortutako harremanengatik. Izan ere, beste harreman batzuetan ez baita dena goxoa izan, nahiz eta orokorrean babes handia jaso dudana. Nire familian, Jesusen Lagundian, senideen artean dena ez da erraza izan. Ez da dena amen izan. Batzuk ez zaizkit hurbildu, baina ulertzen dut hori ere, askotan gauzak ez baitira diruditen bezain errazak. Jazotako guztiak egoera batzuk zailak direla ulertzen lagundu dit. Bestearengana, sufritzen ari denarengana hurbiltzen ez bazara eta entzuten ez badiozu, ezin ulertu. Tamalez, sarritan beldurtzen gara sufrimenduaren aurrean. Oso gaizki kokatzen gara sufrimenduaren aurrean, eta honekin ez dut inor epaitu nahi. Halako jarrerak gure lasaitasunetik ateratzen gaitu, galderak ekartzen dizkigu... Pertsonaren konplexutasuna, aberastasuna eta ahuleziak gehiago ezagutzen eta sakontzen lagundu dit, baita onartzen ere, neurri batean.